



SAĖARTZAZV'TAR
KAVLDI:::

(SATAŖKA)

TXINPAŖIAK

• OLERKIAK •

1922'g VRTEAN

Ros.

8 1/003

3-47


1922

27

22

TXINPAŔTAK

TXINPAĀTAK




SAGĀRTZAZU'TAĀ KAULDI (Satafka)



R. 463

Loyola'taf Eneko Deunaren irafkola.—Garibai, 28.
DONOSTIA.—1922

TXINPAHTAK



BAI LANTHANITAP K. GILDI (1900-1901)



THE UNIVERSITY OF CHICAGO
LIBRARY

BIĀ-BIDEA

¡Aguf, oleski samufak!.....	10
Auftxoa seaskan.....	13
Afaunketa.....	15
Maitatutzeko	18
Neskatil samufa.....	20
Udabefia azkař emen da.....	22
Ořilān gaude.....	23
Mendian bizi nai def.....	25
¡Gabirai gaiztoa!.....	28
Neguan gaude.....	30
¡Auřera eskualdunak!.....	32
Kabiak.....	35
Enada'ren agufa.....	37
Udazkena.....	40
Esnatu gera.....	42
Sabin'en ilobian.....	48
Zori txaf-txafez.....	50
Yosu'ren yaiotza.....	52
Euskadi ama'ri.....	54
Afaunlari zař bat.....	56
¡Yosu maitea!.....	59
¡Txoritxoen ama gaxoa!.....	61
Nere enarakin.....	63
¡Loretxo polita!.....	65
Neskatil maitagafia.....	67
Udabefi.....	69
¿Oroitzen zera?.....	71
Uřetxindofa'ren abestia.....	74
Lore bat.....	76

¿Zergatik?.....	78
Maitasun naia.....	79
lizea.....	81
Ama berbera.....	84
Maitasun eta gofoto.....	86
Oñaze.....	88
Ama Euskadi'ren deia.....	91
Maitetasuna sortzen.....	93
Ilargi gaba.....	95
Euzkia bañon edefagoa.....	97
Ama gabe.....	100
Onena.....	102
Bi ume gaxo.....	104
Yajokundea.....	106
¡Ene usoa!.....	108
¡Lore gaxoak!.....	111
Euskera dala-la.....	113
¡Ama gaxoa!.....	116
Atoz.....	118
Espatadantza.....	120
Goiz-goizean.....	123

ABERÍ MAITEA:

Seme on gutxi dauzkatzu, Ama, eta gutxi abek, zure magal gozoan alkar lagunduz bizi bear lutekenak... guda legausle bat asi dute... alkar yotzen dabiltz... Anitz maite zaituztela diote guztiak... bafian zuk, buruka onegatik zein pozez dagon areriyoa ikusten dezu eta negarez zaude...

Baita ni ere Ama, negarez naukazu gertera oreakin eta zure magal gozora natozkizu eskeintzera olerki txiro abekin ba'tera nere biotz samindua...

¡¡ANAI AK!!

Astu, barkatu biotz-biotzez, alkar en asafe oiek eta goazen guztiok, inor geditu gabe atzean, negarez daukagun Ama Euskadi'ren magal gozora, bere berotasunean besarka baten beti-betiko alkar eta bere onerako lan egitera.

EGILEA

(AGUR, OLESKI SAMURAK!

*Pierre Lhande, S. J.
edestizundari argiari.*

Gazte nintzala, egun aietan,
Nola nintzan ni yolasten...
Samiña zer zan ordun ez nekin,
Betiro pozaz zoratzen,
Betiro pozaz zoratzen.

Ostegunetan yoaten nintzan
Aiton zañaren etxera;
Eritik urin, mendi aldera,
Baseri zuri batera,
Baseri zuri batera.

Uri, baso ta mendi-zelaiak,
Zuri zeudela neguan,
Aitonarekin egoten nintzan
Sukalde gozo-beruan,
Sukalde gozo-beruan.

Berak abesten zitun abesti
 Polit, samurak aditzen,
 Pozaren pozaz egoten nintzan,
 Asko niñuten alaitzen,
 Asko niñuten alaitzen.

Oroitutzen naiz joleski, aiek
 Zeñen ederak ziraden!
 Euskaldun ona baldin ba'zera,
 Entzun egizu bai, aren,
 Entzun egizu bai, aren.

.....

«Ene amaren begi samurak,
 Betiko zazkit eztali;
 Maiteñoaren begi tarreak,
 Bein ta betiko itzali...
 ¡Bein ta betiko itzali!»

«Ez aipa neri landa alaietan
 Sörtzen dan lili edera,
 Otoi, ez aipa... ur axalean
 Arin dijoan ainara,
 Arin dijoan ainara.»

«Lañainetako aritz, gaztaina,
Mendietako iturri,
Oriek oro enetzat dire
Ametz estu bat iduri,
Ametz estu bat iduri.»

.....

Ez ditut geigo adituko ez,
Abesti alai, ederak,
Nere aitona goizean il da...
¡Aguí, oleski samurak!
¡Aguí, oleski samurak!

Orain aitonik ez daukat eta,
Ni beriz zaírtzen naiz asi;
Samintasuna bai-dator nigan,
Zoruna yoan da igesi,
Zoruna yoan da igesi.

Goiko Yaun ona: nitzaz eruki...
Oraindik iltzen ez utzi.
Aiton zaíaren oleski onak
Abestuaz nai det bizi,
Abestuaz nai det bizi.

Donostia'n, 1920'g. urtean, «Euskal-itz Yostaldien Batzafeko»
indaf-neuftzetan saritutako olefka.

AURTXOA SEASKAN

Aurtxo polita
Seaskan dago,
Zapi zuritan
Txit bero...
Amonak dio:
¡Ene potxolo!
Aren egin ba,
Lo-lo, lo...

Dlin-dlan, dlin-dlan...

Ai biotzeko
Maite, kutuna,
Begi argien
Zoruna;
Ez da ludian
Inor ere nik

Bañon geigo nai
Zaitunik.

Dlin-dlan, dlin-dlan...

Gotzontxu eder,
Zoragariak
Egan dabilta
Gañean;
Iñi-bareka,
Laztan ta agurka
Laguntza egin
Naiean.

Dlin-dlan, dlin-dlan...

Txakur-aundia
Etoñiko da
Zuk ez ba'dezu
Eiten lo.
Oregatik ba
¡Ene potxolo!
Egin aguro
Lo-lo, lo...

Dlin-dlan, dlin-dlan...

A R A U N K E T A

Oñtze zabalan odei bat-erez
Dana arkitzen da
Urdin-urdiñik...
Itsas-aundia, eder-edeña
Baretsu dago
Geldi-geldirik...

Eusko-Eñiko ar aunlariak
Gizon indarñsu,
Bikain, azkarak...
Gogoz, zaletsu, etoñi dira
Erakustera
Beren indarñak.

Beurekin ere oste asko gaur
Laisterka eldu
Bai-da nun-naitik,

Eusko yai eder-au ikustera
Alai ta pozez
Bete-beterik.

Araunlariak erne dagoz bai
Beren lekutan
Ondo yañirik;
Len bai-len irten naiaz, agudo
Araun eiteko
Txit zaleturik.

Uste gabeen entzuten da: ¡pun!
Araunlariak
Irtetzen dira.

Rau..., *rau...*, bai-doaz guztiz lais-
Rau...rau... guztiak. [teřka...
Zintzo aurera.

Egin dute bai bira, ta an datoz
Len baño neke
Ta belduř geigoz;
Ta araunlarien buruak dio:
«¡Orain mutilak
Araun, yo gogoz!»

Itsas ontziak nunai mañuka,
Osteak txalo,
Danak aupaka...
Añaulariak añauñak gora,
Orain bukatu
Bai-da añauñketa.

.....

Oñtze zabalan odei bat-erez...
Dana añkitzen da
Urdin-urdiñik...
Itsas-aundia, eder-edeñ
Baretsu dago
Geldi-geldirik...

MAITATUTZEKO

Maitatutzeko
Yaioa naiz ni,
Gogo ta biotz guztifik.
Beraz, maitatzen
Ez ba det, ez da
Neretzat iñoiz zorunik.

Nik maitatu-izan
Ditut uxotxo
Zuri, eder ta lirakiak.
Loretxo polit,
Usaingarakiak,
Eta neskatil bikakiak.

Baia, guztiak
Aldendu ziran
Bet-betiko nigandik;

Eta emen nago
 Gau ta egunez
 Negañka..... bakañ-bakañik.

Maitatutzeko
 Yaioa naiz-ta,
 Ezin añkitu maiterik.
 ¡Au zoritxaña...
 Naigabe, miña...
 Laister naiz gaxo-gaxorik!

Bañan... ez, badet
 Maitagañi bat,
 Maite dedana samuñki.
 Maite ori da...
 Nere Aberñi
 Ederñtsu, kutun Euskadi.

.....

Maitatutzeko
 Yaioa naiz ni,
 Gogo ta biotz guztifik.
 Beraz... maitatzen
 Ez ba det, ez da
 Neretzat iñoiz zorunik.

NESKATIL SAMUÑA

G. S.'tar Beditetxu'ri.

Baratz bikañan
Izaten dira
Usaidun lili
Ederak,
Ta lili samuñ,
Alai gañean,
Pinpilinpauxa,
Politak.
Baratz bikañen bateko lili
Eder, samuña, zera zu;
Beintzat zure yantzi ederean
Pinpilinpauxak dituzu.
Baratz-ederán
Izaten dira
Txoriño maite,
Kutunak,

Eta baratza
Alaitzen dute
Txorien abes
Bigunak.

Baratz-ederen bateko txori
Samur, polita, zera zu;
Beintzat nere gogo ta biotza,
Poz-pozik yartzen dituzu.

UDABERÍA AZKAR EMEN DA

Txori polita,
Txori maitea,
Egun oetan
Alai abesten
Pozik asi da.

Beintzat belardi
Ta zuaitzetan,
Loretxo polit
Yaio beriak
Ikusten dira.

¿Txoriak pozez
Nun-nai abesten....?
¿Lore politak
Lasai yaiotzen....?
Gar ta zaletsu
Zori ederez,
Udaberia
Azkar emen da.

OÍLA'N GAUDE

Oíla'n gaude, ta ene txori

Kutunak alai

Ta pozez.

Baratz, zelayak, gaur daudelako

Yantziak lore

Politez.

Oíla'n gaude, ta nere biotz

Gaxoa... ilun,

Samiñez...

Zure begiak, izaí-argiak


Ez nautelako

Begizten.

Uso txo zuri ori... egasti

Mañtale, polit,

Gaztea...



Zure begiak, bi eguzkiak,
Zuzendu laister
Nigana.

Orduan nere biotz maitea...
Yañiko bai-da
Zorunez...
Eta txorien antzera *txio*
Egingo du bai
Poz-pozez...

MENDIAN BIZI NAI DET

Bidakit emen bean, erian,
 Gauŕ ez dedala zorunik.
 Beti naigabez, ta neke pean,
 Ez det inondik pozarik.
 ¡Ez det inondik pozarik!

Mendi-mendian, neretzat dago
 Zorioneko gents-ona...
 An goian ez det izaten emen
 Beko bizitz-ain iluna,
 ¡Beko bizitz ain iluna!

Pozik yoango nintzake orain
 Berŕtan an goiko mendira;
 ¡Ai! bañan, emen erian, dago
 Amatxo nere begira.
 ¡Amatxo nere begira!

Ama maiteak, min duela-ta,
Gaur arkitzen naiz erian;
Euskadi, gaxo dagon artean,
Ni ezin bizi mendian.
¡Ni ezin bizi mendian!

Emen ez ditut inoiz ikusten
Txoriak sasi gañean;
Emen txoriak ¡ai! beti dagoz
Negarez kaiol-baruan.
¡Negarez kaiol-baruan!

Emen euskeraz mintzatzen naiz-ta,
Par-egiten dit osteak.
An goian oyu egin nik eta
Erantzuten dit mendiak.
Erantzuten dit mendiak.

Emen ez naute inoiz maitatzen
Uxotxo polit txuriak...
Mendian beriz egiaz *be... be...*
Aguízen naute ardiak.
Aguízen naute ardiak.

Emen itunki arkitutzen naiz
 Lagun ta aizkide artean,
 Alai ta pozez bizitzen naiz bai
 Bakar-bakarik mendian.
 Bakar-bakarik mendian.

Anai maiteak; lagundu bear
 Nauzute Ama yasotzen.
 Euskal-Eria yari dezagun
 Alai ta pozez zoratzen.
 Alai ta pozez zoratzen.

Orduan ezei egitekorik
 Ez dedanean erian,
 Yoango naiz bai, goiko mendira,
 Bizitzera gents-onean.
 Bizitzera gents-onean...

¡GABIRAI GAIZTOA!

Gabirai
Gaiztoa,
¡Biotzik gabekoa!
Atzapar-aundiduna,
Etsaiaren laguna...
Txarikeri
Zalea,
Érukirik gabea.
Egin dek
Ondatu,
Bai eta ireganatu
Egaztitxo maitea,
Oloaren umea.
Ta orain
Berakin...
¿Zer naiko dek ik egin?

Amatxo

Gaxua.

Arkitzen dek mindua...

Eta ik, aliz txatxoa,

Beñiro dek asmoa

Barenen

Artua

Yateko txitotxua.

¡Gibirai

Gaiztoa!

¡Biotzik gabekoa!

NEGUAN GAUDE

Zuaitzetatik osto ederak

Gaur asi dira

Erortzen.

Orain zu ere igazte maiteal

Pizkaka suaz

Amaitzen.

Lore politak ere igarturik

Erortzen dira

Luñera.

Orain zu ere, ineska kutuna!

Laisterka zuaz

Obira.

Txori alaiak, baratz-oetan,

Orain ez dute

Abesten.

Orain zuk ere juxo txuria!
Itzik ez dezu
Egiten.

Oñtze-ñlunean, euzki edeñ
Orain ez da-ññoiz
Agerñtzen.

Zure begiak ikusi ditut
;Beti-betiko
Itxitzen...!

¡AURERA ESKUALDUNAK! (1)

GERLA ONDOAZ

*Bidasoaz andikako Yol-
di'ko euskal yaietan saritu-
tako olerkia.*

Egun batean, bildurgarizko
Oyu aundi bat zan entzun;
Aleman txarrik, Prantziko luñan,
Sartu zirala edonun,
Sartu zirala edonun...

Eskualdunak izaki, bañan...
Yun egin bear gudara:
Aguí, betiko ama maitea,
Baguaz txit urutira.
Baguaz txit urutira...

(1) Negu gogoñko gau lazagian bezela abesten da.

Gudara yun-da, beti bořokan

Aleman indarřsuekin,

Bañan etsaiak, ezin beinere

Nai zunik egin gurekin.

Nai zunik egin gurekin...

Bost urře gudan igaro-eta

Burukan genun ikasi:

Aleman txarřak azkenik gero

Laister yun ziran igesi.

Laister yun ziran igesi...

Euskal-Eřira etorř giřan

Alaitasunez beterik

Ama maitea laztandutzera

Gogo ta biotz guztitik.

Gogo ta biotz guztitik...

Orain pakea degula-eta

Lan egin bearř gogotik;

Lengo baseři, zelai gaxoak,

Edeřtu ditzagun gaurřtik.

Edeřtu ditzagun gaurřtik...

Gudan arkitu geran artean,
Eria zaigu txit auldu.
Euskal semeak; denak batean
Beñiz yaso beñi degu.
Beñiz yaso beñi degu...

Mintza gaitezen beti euskeraz
Anai, aizkide, lagunak.
Maitatuz alkar lan egin gogoz,
¡Aurera eskualdunak!
¡Aurera eskualdunak!

KABIAK

*Victor Hugo'ren olerki
baten euskeralbena.*

Yorálean, lili
eder, txit politak sórtzen diranean,
enadak bilatzen
dituzte telatu azpi eta gelak;
eta urétxindorák
bilatzen dituzte mendi goietako
baso ilun-ilunak,
an inórak ere ezin ikusi ditzaken
lekuan, maitasun
onez beti bizi ditezen poz-pozez.

Eta guk ere eñi
aundietan, txoko bat bilatzen degu,
txoko ixil-ixil bat,

maitezalientzat ona dan txokoa...
eta askoz naiago
ditugu inor gabe dagozen txaideak.

Mendi goian ere
naiago ditugu oleskari eta
arizai bikañaren
txabol eder-zarak. Ta luditik urin
etxe bat nai degu,
basetxe zuri bat, gure maitasunak
gordezkeko, txori
kutunak kabia gordezten duten lez.

ENADA'REN AGUÑA

Nere biotzak
ez dauka uruti
yuteko gogo
aundirik...
bañan Euskadi
Ama lagata
yun bear miñez
beterik.

Emen yaio, naiz,
mendi-etxeko
gela zaí, ederí,
batean;
amatxok egin
zuen kabitxo
biribil gozo,
maitean.

Ezin nezake
nik iñoiz aztu
yaiotako lur
nerea;
neretzat beti
dalako leku
ederitsu ezin
obea.

Uda edera
laister yun da-ta,
orain badator
negua;
beragatik nik
alde egin bear
utzirik miñez
usua.

Ni yaiotako
mendi-etxeko
mutiko samur,
argia:
aren, iñoiz ez

puskatu gela
zaŕeko kabi
maitia.

Aguŕ, Euskadi,
nere Aberi,
aguŕ, zelai ta
basoak;
urengo urte
arte aguŕ, bai,
anai samur, on,
euskoak.

UDAZKENA

Ostoak erortzen asi
dira zuaitzetatik...
Lore gaxoak diyoaz
gelditzen igarturik...
Naigabez, ezin etsirik,
Bai-dagozte txoriak,
apal ta nagi, abesten
abesti itungariak.

Ortzea estaltzen dute
odei beltz-itsusiak...
Tsi... dar-dar... diote tximist
ozantz bildurgariak...
Laisterka irtendu da indardun
aize guztiz aundia...
Bereala asten du euri
yasa ikaragaria.

Euzkia gordea arkitzen
 da odeien taritean...
 Baseri, uri, mendiak,
 bai-dagoz ilunpean...
 Alaka dabil ardia,
 udan alai zegona.
 Ekaitz txit gogoia dago...
 gañean da Udazkena.

ESNATU GERA

GERNIKA-KO ZUGATZA'RI

Gerñika'ko árbola
Da bedeinkatua
Euskaldunen ártean
Guztiz maitatua.
Eman-da zabaltzazu
Munduan frútua,
Adoratzen zaitugu.
Árbola santua.

IPAÑAGIÑE.

Len, antziñean
Gure asabak, Bizkai'ko eñi
Polit batean,
Aritz-edeñá
Zuten aldatu, erakutsirik
Euskal-indañá.

Aritza-aldatu,
Ta bere-itzalpe gozoan, eusko
Yaunak alkañtu;
Batzañ-bileran
Legeak egin, ta erabaki
Zintasunean.

Gero, azkañki,
Agintz zuzenak zabaldu nunai,
Alzan obeki;
Euskal-Eñian
Yakin zezaten zeñ gertatzen zan
Beren artean.

Nai bezin ongi,
Eusko semeak, yaioteñian
Ziraden bizi.
Beti berekin
Zuten zoruna... aitona zañen
Agintz-aiekin.

Oñegatikan
Euskaldun bikain Ipañagirek,
Beldura zeukan

Aritza-iltzeko,
Azkatasunen ikuñkoñ (1) zan
Bada galduko.

Aritz sendua,
Oraindik zutik... ezea dago,
Ez da-igañtua;
Bañan beraren
Azpian, eusko semerik ez da
Gaur bileratzen.

¿Zerñako degu
Aritza, lege-zañak betiko
Ba ziran galdu?
¿Zerñako degu
Bere-itzala, eusko yaunak otzez
Ba dagozte-estu?

Galdu bai-ziran
Lege-zañ, onak; galdu bai-ziran
Zoritxañean...

(1) Símbolo de la libertad.

¡Aritz gurea!

Ez egon zutik besten paí-gaí...

!!!Il, il, maitea!!!

.....

Ez, ez, aritza,

Zaude zutikan, badator ere

Gogor-ekaitza;

Bigaí, egintzak,

Beaí dute-izan Ipaíagiíre

Zanaren itzak.

Esnatu gera

Euskaldun onak, erukitu da

Gure Yainkoa,

Zure-itzalpean,

Euskoak, laister bilduko dira

Zorionean.

Beaí dituzu

Zure adararak oraindik geigo

Zabal, luzetu...

Yakin beaí du

Ludiak, euskoen zugatz deuna

Zeradela zu.

Iparagire:

Lo egin zazu, orain arte-egin
Ez ba'dezu-re,
Zure gogoko
Zugatz maitale, kutuna ez, da
Iñoiz ere-ilko.

Uste gabea,
Laister batuko dira aritza'ren
Itzal gozoan
Euskotar Yaunak,
Ta zuzenduko dituste lengo
Lege-zaí, onak.

Aritz-azpian
Batu euskoak, ta erabaki
Denak batean,
Gentz-ederean,
Egitea anai-agur-aundi bat
Zure-izenean.

.....

* * *

Esnatu gera
 Euskaldun onak... erukitu da
 Gure Yainkoa...
 Zure-itzalpean,
 Euskoak, laister bilduko dira
 Zorionean...

Bea dituzu
 Zure adarak oraindik geigo
 Zabal, luzetu...
 Yakin bea du
 Ludiak, euskoen zugatz deuna
 Zeradela zu...

Ufexua'n Ipafagife zanaren orolizaz egindako yalelan sa-
 ritutako olefka.

SABIN'EN IĻOBIAN

¡Sabin, maitial
¡Sabin, aundial
Emen zaudena
Luí-pean,
Nekeen órdez
Gozoz atsedén
Zaite, betiko
Gentzean.

Etsai gaiztuak,
Zentzu galduak...
Etziñuten nai
Ikusi.
Eta gorotoz
Egin zizuten
Azkatasuna
Galazi.

Gogoz, laztandu
 Zendun Euskadi,
 ¡Gure Aberri
 Maitia!
 Eta Ama zaia
 Gaizkatzearen
 Aitu zan zure
 Bizia.

.....

¡Sabin, maitia!
 ¡Sabin, aundia!
 Emen zaudena
 Luí-pean,
 Nekeen orde
 Gozoz atsedan
 Zaita, betiko
 Gentzean.

ZORI TXAR-TXAREZ

*Heine'ren oleñki baten
euskeralbena.*

Udabeñian, eguzki eder
Sutsuak, *diz-diz*
Ta lore polit, maite, laztanak,
Yaiotzen dira.
Gau ilunean, ilaegi apal,
Samuñak, *diz-diz*
Ta izañ-añgiak ikusten dira
Oñtze ederean.
Neskaren begi kutunak, *diz-diz.*
Oleñkariak
Orduan eñaz egiten ditu
Oleñki onak.
¡Bañan au miña... Eguzkia ta
Lore politak,

Izar-argiak eta ilargia,
Olerki onak,
Eta neskaren begi alaiak,
Ludi onetan
Zori txar-txarez, gaur ez dira ez
Ezeitarako!

Y O S U ' R E N Y A I O T Z A

Yaiki aitzaiak eta etori
Belen'go txabol zaiera,
Bart aiatzean emen yaio dan
Aurtxo polita agurtzera.

Aurtxo polita,
Yaun aundiaren
Semetxo kutun,
Maitea:
Zu zera gaurtik
Ludi guztiko
Yaun gurgañi ta
Yabea.

¿Bañan nolataz
Txabolan yaio
Izanik Yainko
Semea...?

¡Gugatik otzez
 Daŕ-dar̄ka zaude...
 Lo, kutuna, lo,
 Umea!...

Yaiki aŕtzaiak eta etoŕi
 Belen'go txabol zaŕera,
 Baŕt aŕatzean emen yaio dan
 Auŕtxo polita aguŕtzera.]



EUSKADI AMA'RI

A, biotzeko Ama maitia,
Zurekin dezu samin aundia.

Antziñean bizi ziñan,
Alai ta pozik,
Eta ez zendun ikusten
Zoruna baizik.

Orain azkatasun gabe
Zaude belzturik,
Eta ez dezu zurekin
Miña besterik.

A, biotzeko Ama maitia,
Zu-izan zera bai, beti garbia.

Érukigaria zera
Guztiz, gogotik,
Ez dezulako nai ainbat
Maite-laguntzik,

Seme asko oraindik daude

Zutzaz azturik,

Eta ez dizute eskeintzen

Beren biotzik.

A, biotzeko Ama maitea,

Guretzat zera ezin ohea.

AÁAUNLARI ZAÁ BAT

Aáaunketako
Eguna da-ta,
Nun-nai ikusten da gaur ostea.
Nere ondoan
Beñiz, geldirik
Dago aiton zaí-aíantzalea.

Bizaía eta
Buruko-ileak,
Ditu elurá lez txit zuriak.
Larogeien bat
Urte ditu, bai,
Len izandako aáaunlariak.

Aáaunlariak,
Gizon bikañak,
Indaítsu asi dira aáaunean...

Eta aiton zaia
 Ezin egon-da
 Aruntz ta onuntz dabil kaiean.

Auñetik aisa
 Dala ikusten du
 Bere eriko ur-ontzi azkaia;
 Ta alai ta pozez,
 Begietara
 Etoñtzen zaio malko negaia.

Ontziak eman
 Dute bai, bira;
 Eta guztiak datoz txoil berdin...
 Aitona zaia
 Ixilik dago...
 Ez du itzik eiten, ez, inorekin.

Bukaeran da
 Añauñ yokoa,
 Ta aitonak oyu bat dio gogor:
 «¡Yo, mutilak, yo!
 ¡Azkañ-azkañ, yo!
 ¡A... orain or ba'nengoke... ni or...!»

Araunak gora...
Eta aditzen da:
¡Bat, bi, iru, lau, bost... amañ...
Aiton zañaren [amairu!...
Eñikoak gaur
Aisa-irabazi, besteak galdu.

Bukatu da, bai,
Estropada-ta
Aitona zaña, gizon samuña,
Pozez diyoa
Etxe aldera,
Oñtzak agertuz dario para...

¡YOSU MAITEA!

Érukitzen naiz, Yosu maitea,
Zu óren gaxo ikusirik,
Eta nere biotza yaítzen da
Naigabez érdibiturik...
¡Naigabez érdibiturik...!

Odol zikiñez loitua zaude,
Goitik asi ta beraño,
Ta buruan arantzak dituzu,
Txoil saítuak ondoraño;
Txoil saítuak ondoraño...

Lengo arpegi goñi, mañdula,
Zuri-zuria daukazu,
Ta begi bigun, eder samurak,
Guztiz itxiak dituzu;
Guztiz itxiak dituzu...

S A G A R T Z A Z U ' T A R K A U L D I

Erukitzen naiz, Yosu maitea,
Zu oñen gaxo ikusirik...
Eta nere biotza yaítzen da
Naigabez erdibiturik...
¡Naigabez erdibiturik...!

! TXORITXOEN AMA GAXOA !

Txoritxo samur, bikain, politak,
egunero nere baratzako
zuaitzan pozik du bai abesten;
nonbait ene maitetxo, kutunak,
ez dauka bere baruan poza
ta zoruna besterik arkitzen.

Txori politak, bai-zeukan
nere baratzan, kabitxo
eder bat iru umetxokin;
eta bere umetxo aiek
azitzen bizi zan pozik
nere baratz-ederéan.
Bañan lengo egunean
mutiko gaizto batzuek
ixil-ixilik etori
ziran nere baratzara,

ta nik ezei yakin-gabe
 kabia lapurtu zuten
 ume ta guzti, ta amatxo
 gaxoak au ikusirik,
 naigabez, miñez, yañirik,
 negaiez txioka asi zan.

Txoritxo samur, bikain, politak,
 orain ez du egunero nere
 baratzako zuaitzan abesten;
 ene maitetxo, kutun, apalak,
 ez dauka bere bañuan miña
 eta ituna, besterik arkitzen.

NERE ENARAKIN

¿Zeritara zatoz,
 nere enaratxo
 beltxeran, polit,
 liraña...?
 Bakar-bakarrik
 oldozten nengon
 begi maiteak
 itxita,
 ta zu etori
 zera nigana
 gogakizunak
 kentzera;
 ta orixe zaude
 ixilik eta
 geldirik neri
 begira.
 Ikusirik zu

orén ixilik...
niri sartu zait
ifuna,
ifun aundia,
ez dezulako
ezeitxo ere
abesten,
izanik zu ain
ona ta apala;
ibeltxeran, polit,
bikaña...!
¿Bañan zerगतik
etoři zera
ixilka nere
gelara...?

¡LORETXO POLITA!

Loretxo polit, maite, laztana,
Orain yaiotzen ari zerana...
Nere begiak
Daude argiak,
Eta poz-pozik zaituzte ikusten
Nolaz bizitzen asi zeraden.

Usaia dezu gozo-gozoa,
Alaitzen dezu nere gogoa;
Gogo maitea,
Guztiz nerea...
Ta zu usaiturik ni naiz oroitzen
Maitasun gabe naizela aitutzen.

Datoñen uda guzti-guztian,
Izan zaitez txit eder ludian,

Igaritu gabe,
Usai on yabe;
Ta nik maiteko zaitut poz-pozez,
Gogo guztitik... biotz-biotzez.

NESKATIL MAITAGAŖIA

A.'tar' X.'ri.

Oso politak dira
zure begiak,
anitz bikañak eta
maitagaŖiak.

Zu bezin lirain
Eta samuŖa,
Ez da usotxo
Txuria.

Zu bezin laztan
Eta maitea,
Ez da usaidun
Lorea.

Oso politak dira
zure begiak

anitz bikañak eta
maitagañiak.

Zu bezin apal
Ta egokia
Ez da-ilañgi
Betia.
Zu bezin eder
Ta dizditsua
Ez da euzki
Añgia.

Oso politak dira
zure begiak,
anitz bikañak eta
maitagañiak.

UDABEŖI

Ostoz ta lorez yantzi dira zugatzak...

Zuri-zuri dagoz zelai ta baratzak...

Elurá bezela

Ageritzen dirala...

Uri, baseñiak, daude aberatzak,

Ederñtasun alaiez bete-beteak,

Lorien usai gozoz ase-aseak.

Ederñtasun-atsegin au ikusirik,

Txoriak ezin dira egon ixilik;

Eta zorionez,

Atzegintasunez,

Egun guztian bai-dabiltza poz-pozik,

Abestuaz abesti samur, politik,

Alaitzen zugazti, baseñi, zelaiak.

Mendiko ote arantzadunak utzita,

Arkumetxo gaxoak bera yatxita,

Zelaietan daudez,
Belar-ona yanez,
Eguzki ederitsua artuaz be-beka;
Zoriontasunez ta pozez beterik,
Negu txaren otz gogorik ez dutelik.

Zugazti, mendi, zelai, uri, baseñi,
Guztiak arkitzen dira alaitsu ta argi;
Ekaizterik gabe,
Eguzkian yabe,
Ipar-aize edera izanikan gidari...
Non-naiko basterak dirade ikusgarñi;
Ez dago zalantzik, au da ba Udaberi.

1918'gafen urtean, Donosti'ko Euskal indar neurtzetan lenda-
biziko mañan saritua

¿OROITZEN ZERA?

*«Órduz, geroz, maiz egiten dut nigar;
¡Ain eder zen, ain erne, ain azkar!
Etzuen ez, mendietan parerik;
Urundu da... nik ez dut beñirik.»*

GIBET

¿Oroitzen zera, ene txoriño
Aíratz-aítako
Órduez?
¿Oroitzen zera, zuk gogoz eman
Nai etzenidan
Musuaz?

¡Ail, bañan gero... zure bañuan
Piztu zan sutzar
Beroa,
Eta bat-baten eman zenidan

Maitasunez, *pa*

Gozoa,

.....

Udaberiko lili ederak

Igaritzen dira

Neguan.

Lili gaxoak bezela, zure

Maitasuna-il zan,

Órduan.

Udazkenean, enada yoan

Zan nere-etxeko

Kabitik;

Bera etorí da beriz, bañan...

Zu maiteño, ez

Oraindik.

Bai-dakit nik bai, pozik etorí

Gura dezula

Nigana,

Yoango banintz lendabizi ni

Apal, samurki

Zugana.

Ezin yoan ni, ezerengatik

Ziñez sapuztu

Agana.

¡Aztu nazazu beti-betiko...

Ori-izango da

Onenal

URÉTXINDOÑA'ren ABESTIA

Txiñupíñu, txi...

Udaberiko
goizaldea da;
goizalde eder ta
garbia...
Bat-baten, alai
ta pozik, samur
asi da abesten
txoria.

Txoñotxi, píñi...

Ez du bestea
bezela-abesten,
ez da edozein
txoria...
Txori txikia

da, baña bere
abestia da
guria. ⁽¹⁾

Piñitxi, txa, txa...

Gauerdia da,
eta ixil...; ez da
ezeñ entzuten
lurcan.

Odeirik iñon
ez; ilargi ta
izar politik
ortzean.

Txopi, txopi, txi...

Urctxindora,
abesten dago,
zugatz-abaren
gafcan.

¡Bere abesti
txit samura da
beste abesti
artcan!

1) Ourla-Suave.

LORE BAT

Zuk emandako lore samurra,
daukat begien
aurrean;
ta bera lako beste bat, inoiz
ez det arkitzen
lurrean.

Zure-eskutxoak egin zuten ain
gauz polita, ez
da-igartzen;
bai-dirudi indar geiagokin nai
duela yara
bisitzen.

Maitasun ona ere, zuk ipiztu
dezu bai nere
baruan;

aspaldian lo zegona nonbait,
egunez eta
gabean.

Lore politen antzera, ez da
maitasun ori
amaitzen,
ba egunetik egunera bai-
diyoa sutsu
indartzen.

¡Ai! bañan... zure biotza, besten
batek ote du
laztantzen?
edo ni ote naiz lenbizikoz
dedana pozik
maitatzen?

.....

Zuk nai izan-ta zorioneko
izango naiz ni
betiko...
¡Áren ba, maitel erantzun gabe
orain ez utsi
geroko...

¿ZERGATIK?

Ene txoria: ¿zerгатik ez dek

Uxo polita maitatzen...?

Sasoi onean, uxo txuria,

I gabe zeok mindutzen;

Oa laisterka beragana, ta

Samur ekin zak abesten.

I beste txori alairik ez dik

Uso lirafiak ikusten;

Ire irudi txit eder, samurak

Uxo bai-dik alaitzen.

Ene txoria: ¿zerгатik ez dek

Uxo polita maitatzen...?

MAITASUN NAIA

Orain bai-daukat maitasun naia

zuretzat;

zure begiak

bi eguzkiak,

piztu ta sutu didatelako

biotza.

Ezautu gabe maiz nauzulako

agurtzen...

zure begiak

izar garbiak,

maite nauzula beti didate

esaten.

Txorifio gabe orain zerala

arkitzen...

zure begiak

guztiz-argiak,
egi izugarri ori didate
esaten.

Ni gabe samin ta-itun zerala
egoten...
zure begiak
izar garbiak,
erdi ilundurik maiz didate, bai,
esaten.

Zure biotza nerekin dala
poztutzen...
zure begiak
guztiz-argiak,
begiratuaz samur didate
esaten.

Orain bai-daukat maitasun naia
zuretzat;
zure begiak
bi eguzkiak,
piztu ta sutu didatelako
biotza.

ITZEA

BAROJA'tar PIO
edestizundari ospetsuari.

Udaberri'ko
Aratsaldea...
Aratsalde on alai, argia.
Euzki ederak
Bere-izpiakin,
Ufrezten bai-du lur-au guztia.

Odeirik ez da
Inon ageri...
Urðin ta garbi bai-dago oítzea.
¡Guztiz edera
Ta alaia da bai,
Udaberri'ko aratsaldea!

Yauregi eder
Bat ikusten da
Mendi bikain batzuen ondoan.

Uso zuria
Bezela¹koa,
Zelai zabal, berdiñen gañean.

IZTEA izena
Du yauregiak,
Eta beraren atze aldean,
Baratza bat da,
Usaidun lili
Txit politak ditula inguruan.

Baratz-or²etan
Arkitzen dira
Pinpilinpauxak eta erleak,
Bai-ta be pozik
Bizitzen dira
Ber³tan txori kutun, maitaleak.

.....
Arizti eder,
Aundi batean,
Kuku ona abesten dago: *ku-ku...*
Eta ITZEA-ko
Baratzen txori
Samurak diote: *txotxi, Pio..*

Yauregi eder
 Antziñakoan,
 Gizon txit yakintsu bat bizi da.
 Bidasoa'ko
 Txapelaundia,
 Edeztizundari ezaguna.

Udaberiko
 Aratzaldean,
 Bera'ko urira naiz etoñi,
 Ta leku alai
 Au-ikusirik,
 Agur dagiot gaur Baroja'ri.

AMA BEÉRBERA

*Bidasoz andikako
anai maitiei.*

Aguí, zueki, Laburdi eta
Zuberoako euskoak;
Zuentzat izan ditezen gaurko
Nere itz neurtu ta gozoak.
Nere itz neurtu ta gozoak...

Leku alaian yaio ziñaten,
Bidasoz beste aldean;
Euskoak zaizte, beti naiz bizi
Etsai gaiztoen mendean,
Etsai gaiztoen mendean...

Zuek eta guk egizko Ama
Eder bakara daukagu;

Gogo guztitik, biotz-biotzez,
 Bear deguna maitatu.
 Bear deguna maitatu...

Anai maiteak: batu gaitezen
 Euskoak geran aldetik;
 Aberi Ama, yari dezagun
 Beste guztien gañetik.
 Beste guztien gañetik...

Biotz gabeko etsaiei bear
 Diogu adierazi;
 Gure lurrean ez degula nai
 Estutasunez gauñ bizi.
 Estutasunez gauñ bizi...

MAITASUN ETA GOŖOTO

Oŕtzea gaŕbi... bare itsasoa...
Udaztea dek, eta baratza
Bai-zegok eder, lore politez.
Zoruna-izanik, txori maiteak,
Iñolaz ezin egon ixilik,
Ta abesten ditek alai ta pozez.

Ire baŕuan goŕotorik ez...
Udaztea dek, eta baratza
Bai-daukak eder, maitasun lorez.
Zoruna-izanik ire biotza
Iñolaz ezin egon ixilik,
Eta abesten dik pozaren pozez.

Oŕtzea goibel... itsasoa txar...
Negu miña dek, eta baratza
Bai-zegok zarpail, zakaŕ zikiñez.

Ituna izanik, txori maiteak,
 Iñolaz ezin alai abestu,
 Ta oregatik zeudek negaréz.

Ire baruan, gofoto bizi...
 Negu txara dek, eta baratza
 Bai-daukak zikin, girna zitalez.
 Gaizki nai izanik, ire biotzak
 Iñolaz ezin pozik abestu,
 Ta beti zegok sutan, oñazez...

OÑAZE

Biotz gaxua,
Oso mindua,
Érdibiturik dago zugatik.
Beti oñazez,
Dabil negárez...
¡Ez diozu-ta maitetasunik!

Ez negar egin
Ene kutuntxo, maite, biotza...
Eguzkiakin
Ur্তুko zaizu dezun izotza.

Lenago maite
Zendun ainbeste...
Bañan axolik orain ez dizu,
Ta asareturik
Biotz guztitik,
Maitetasunik gabe-uzten dezu.

Ez negar egin
Ene kutuntxo, maite, biotza...
Eguzkiakin
Urtuko zaizu dezun izotza.

Gau ta egunez,
 Beti naigabez,
 Ezin etsirik, saminez dago.
 Eguzki gabe
 Min-otza yabe,
 Ezin du egin otzikaraz lo.

Ez negar egin
Ene kutuntxo, maite biotza...
Eguzkiakin
Argiuko da zure-iltun beltza.

Saiatzen naiz bai
 Alegin guztiz,
 Oñaze gogoñ-abek arintzen...
 Bañan biotzak
 Ditu mingatzak,
 Eta maitetxo gabe dago-iltzen.

*Ez negar egin,
Ene maitetxo, kutun, biotza...
Maitasunakin...
Berotuko da dezun laiotza.*

AMA EUZKADI'REN DEIA

Seme maitea,
 nik i nai eta
 zerगतik ez nauk
 maitatzen...?
 Zuzen-zuzenki
 neri laguntzen
 i autenean
 ikusten,
 nere biotza,
 irea dana,
 bat-batean dek
 alaitzen.
 Atoř laisterka
 ene semea,
 i gabe neok
 aitutzen,
 ire laguntzak,

ire indartzañak,
ama ona dik
piztutzen.

Seme maitea,
nik i nai eta
zeñgatik ez nauk
maitatzen...?

MAITETASUNA SOÏTZEN

Zoragaña, maitagaña,
neretzat izaten bai-da
udabeña...
Lore politak, lore samurak,
urtero alaitzen dute
nere gogoa.

Udabeñan, ne biotzean,
maitetasun gozo, eder,
ona soïtzen da...
Txori alaiak, txori maiteak
txio-txioka entzuten
ditudanean.

Zure baruan ¡gazte maitea!
biotz eder-orek ere
beaï loratu...

txori kutunen antzera pozez
ta alaiez egin dezazun
beti abestu.

.....

Zoragaña, maitagaña,
neretzat izaten bai-da
uso zuria...
Bere ontasun eder, samurak,
maitetasuna sortzen du
ne biotzean.

IĻĀRGI GABA

Gau edeĥa da, eta-iñon
 ez da odeirik ageri.
 Ipaĥ-aize txit biguñā
 bai-dabil *biz... biz...* egiñāz,
 pizka bat oztutzen leku
 guztietan diran gauzak.
 Oĥtze biribil, edeĥa,
 uĥdin-uĥdiñā dago, bai,
 eta dana-izaĥ politez
 estaldurik aĥkitzen da.
 Guztien aĥtean, denen
 agintari ta nagusi
 bai-dago iĻārgi betea,
 guztiz apala ta aĥgia.
 Txit uĥutitik saĥitan
 datoĥ itsaso gogoĥ ta
 izugaĥien muĥ-muĥa.

Ta igel guztiz beritsuak
 zelai-erékatan dabiltz,
 abesten oso abesti
 zakañak, ixildu ere
 gabe, egiñaz *kiñu... kiñu...*

EUZKIA BAÑON EDERÁGOA

Euzkia bañon
Ederágoa-aiz
Uso zuri, maídul-ori...
Lorea bezin
Samur ta alaia,
Izaía bezela polit.

* * *

Bañan, bein yoan
Intzanan urun, mendi-etxeko
Kabitik,
Eri aberats
Aundi ba'tera, yaiotería
Utsirik.

Eta geroztik
Ez diñat iñoiz ere-izan ire
Beririk,

Ta egaztia
Ikusi gabe, beti egon naun
Mindurik.

Egunak yoan,
Egunak eldu, beñiro aunat
Ikusi,
Uri zañean...
Gutziz txarturik, lengo antz gabe,
Itsusi.

¿Eñi artako
Bizi izateak, nonbait ez aldin
On-egiñ...?
¡Lenago emen
Osasun-ona, ta orain beñiz
Beti min!...

.....

Azpaldi ontan
Ezaunden bizi aizela eñi
Zañean;
Nere biotza
Alaitzen den bai, yartzean ire
Añean.

* * *

Enzkia bañon
 Ederagoa-aiz
 Uso zuri, mañdul-ori...
 Lorea bezin
 Samur ta alaia,
 Izaña bezela polit.

AMA GABE

Aspaldi ontan Amatxo gabe
Bizi naiz itun, saminez...
Txoria-izanik ezin abestu,
Betiro nabil negarez,
Betiro nabil negarez...

Beste txoriak alai ta pozez,
Txioka dabiltz edonun;
Ama kutuna dutelako bai
Beti beurekin txit lagun,
Beti beurekin txit lagun...

Nik ere nai det Aberi Ama,
Biotz-biotzez agurru;
Bañan igaxoa! besteren mende...
Ta ezin inoiz laztandu,
Ta ezin inoiz laztandu...

Laister beaŕ det Ama maitea,
 Etsai aŕtetik azkatu;
 Gero ez dedin oñaze, miñez,
 Beti-betiko amaitu,
 ¡¡¡Beti-betiko amaitu!!!

ONENA

Bat-batean, nere begiak ikusi
bai-diten ire-irudia...
Bereala, nere biotza mugitu
den, egaz yaí nairikan.
¡Ait! sutan zegonan, maitetasun-suaz,
poz-pozik nere biotza.

Ain den bai polita... ire arpegia...
Ain lirafia den goíputza,
non yaí naun pozez, maitetasun-garez...
¡ait! bai, maitasun-zorunez.

¡Nere maitasuna... noiz bait izan unan
maitetasun ezfitsua,
azpaldian ila zegonan, bai, nonbait,
beti-betiko galdua!...

Bañan ire begi ederitsu, argiak,
 ire arpegi politak,
 ire gorputz bigun, lirain, samuritsuak,
 irudi berdin-gabeak...
 piztu ditzen nigan naitasun bizia,
 naitasun eder, garbia,
 maitetasun gozo txit zoragaria...
 !!!gauza guztitan onena!!!

BI UME GAXO

Bi ume gaxo
Etoñi dira gauñ, ixil, nere
Etxera.
Zikin-zikiñak
Etoñi dira, negañez, neri
Deitzera.

Bi ume, oñen
Gaxo ikusirik, nere biotza
Mugi da:
Aurpegitxoak
Zitusten zuri, otzez zegozen
Dañ-dañka.

Gogoz galdetu
Diot beudeki, esateko zer
Nai duten;

Eta erantzun
 Didate: «ogi pizka bat beaf,
 Len-bai-len.»

Erukiturik,
 Eman diotet neukan yakitxo
 Pizara:
 Izan ere, jail
 Gaxo aiek ba zuten zerbaiteu
 Beafa.

.....

Zuek, aberats
 Latzak: zehentzat, noizko dezute
 Txindia?
 Ez izan biotz
 Gabeak... Piztu, alaitu, txiro
 Maitea...

YAIOKUNDEA

Yaiki zaitezte ártzai azkañak
Eta ártu árditxoak poz-pozik,
Belen'en yaio dan aurtxoari
Eskeintzeko biotz-biotzetik.

Izañ beñi bat
ageri da gaur
orñze biribil
garbian,
besteak bañon
arñitsuago
dagona denen
arñean.

Izañak esan
nai du emanik
alaitasunez
arñgia:

baít aítzean
 Belen'en yaio
 dala Yauna'ren
 semia.

Yoan zaitezte aítzai maiteak
 Laisterka Belen'era poz-pozik,
 Yauna'ren seme maitagaría
 Agurtzera biotz-biotzetik.

¡ENE USOA!...

Irudi lirain, polita;
Irudi samur, leguna...
¿Zerगतik, ixil
Ageritu nere
Aurean...?

Maitetasunez aztuta,
Txit bare neukan biotza...
¿Zerगतik bada
Ageritu nere
Aurean...?

¡Ene usotxo...! Zugatik
Nere biotza mugi da...
¿Bañan zerगतik
Mugitu nere
Biotza...?

¡A, maitale-ezfitsu ori,
 Egazti eder gaztea!...
 ¿Bañan zeréatik
 Maitetasuna
 Berpiztu?...

Biotza ezin aserik
 Naigabetuta arkitzen naiz...
 Zugatik, maite,
 Zugatik, jene
 Usoa!...

Aldendu nere auretik,
 Aldendu, beti-betiko...
 Nere maitale
 Biotza, ¡¡¡leñtu
 Ez dedin!!!

.....

Ez, ez, uso legun-ori...
 Ez, ez, egazti biguna...
 Atoz lasterñtxu,
 Beti-betiko
 Nigana.

Goazen emendik urin...
Egan goazen mendira...
Antxe, betiro
Izango degu
Zoruna...

¡LORE GAXOAK!

Lore kutunak,
Lore maiteak,
¿Zeréatik yaio zerate Ilbeltzean?...
Polit-politak,
Alai-alaiak,
Etzate-izango ba Yorail aldean.

Uretxindorak,
Txori samurak,
Abestuko du, bai, Udaberrian.
Zoragaria
Dan abestia
Ez dezute ba entzungo Orilean.

Egun ederak
Eguzkitzuak
Izanik yaio zerate Ilbeltzean.

SAGARTZAZU'TAR KAULDI

Izotz zuriak,
Erukigeak,
Ilko zaituzte gau txarren batean.

.....

Lore kutunak
Lore maiteak,
¿Zerगतik yaio zerate libeltzean...?
Polit-politak,
Alai-alaiak,
Etzate-izango ba Yořail aldean...

EUSKERA DALA-TA...

«Eguzkiaren argitasunak
 Oñtzetik zabal yatxirik,
 Luñeko gauzak orok yartzen dauz
 Osasunagaz yantzirik
 Eguzkiaren argia baga
 Ezeñk eztaun lez bizirik,
 Oure euskera zañ maite barik be
 Ezta euskotar eñirik.»

ENBEITIA'tañ KEPA

Nere izkera zañ, eder, samuñ,
 Maitatutzen det
 Gogotik;
 Oñegatikan beti-betiro
 Idatzitzen det
 Poz-pozik.

Ene amaxok, auñxo nintzala
 Euskeraz zidan
 Itz-egin:

*«Nere laztana... izar argia...
Lo egin, lo-lo
Nerekin.»*

Nere amaren itz samur aiek
Gaur maite ditut
Geiago;
Baru-baruan sartuak ditut...
Nik ezin aztu
Eundafio.

Baŕian euskeraz idazten ba'det
Au, ori, ura
Dala-ta,
Norbaitek laister esaten bai-dit
Astia galtzen
Dedala.

Gure izkuntz-ona maite degunok
Astia galtzen
Ba-degu,
Euskera zara maite ez dutenak,
¿Zer eiten dute
Goraldur?

Ez dute deusik iñoiz goraltzen,
 Yokoan txindi
 Maiz galdu...
 Gau ta egunez berak egiten
 Dute astia
 Ondatu.

¡AMA GAXOA!

Ama'ren samintasunak,
 iluntzen dute
 nere biotza;
Nere biotza poztutzen
 du Amatxo'ren
 alaitasunak.

¡Edeñ-edeña zera, Ama ori!...
Bañan naigabez zaude, igaxoa!...
 ¿Zer gatik bada
 beti naigabez?...
 ¿Zer gatik mindu
 nere biotza?...
¡Ai! ¡Beti-beti zutzaz oldosten,
Zaudelako besteren mendean!

.....

Ama'ren estutasunak,
mindutzen dute
nere biotza...

Nere biotza poztuko
du Amatxo'ren
azkatasunak...

ATOZ

Atoz egazka nigana,
ene-uxotxo maitia,
zu gabe daukak bañuan
naigabe txit-aundia.

Nere biotzak
ezindu ba, iñoiz
gozotasunik
arkitu,
zu gabe-egiten
zaidalako maiz
oñazez, miñez,
zarítatu.

Atoz egazka nigana,
ene-uxotxo txuria,
zu gabe daukat bañuan
naigabe txit aundia.

Zurekin nere
 samintasuna,
 aldenduko da
 betiko,
 eta gañera
 nere biotza
 beñero ziñez
 poztuko.

Atoz egazka nigana
 ene-uxotxo argia,
 zu gabe mindua daukat
 nere bizi guztia.

ESPATADANTZA

Eusko gazteak,
Zuri, goñiz ta
Orlegiz yantzi
Dirade...
T̃un-fun txistuen
Txiru-liru'az,
Enparantzara
Doazte.

Eurok dantzatzen
Ikusi naiez,
ostea dator
Nun-naitik;
Izan ere ez da
Ezpatadantza
Bezin dantz-eder,
Politik.

Tunfunerua
 Asi da yotzen.
Txibirin, fun-fun,
Txibirin...
 Mutil biguñak
 Ara, onera,
 Dabiltz, *triki-trak*
 Egiñik.

Ozte guztia
 Gogoz, zaletsu,
 Euskoen dantza
 Ikusten
 Aspertzen ez da,
 Txalo ugari
 Poz-pozik dute
 Bai-yotzen.

Amaitu da, ba,
 Ezpatadantza,
 Inoik nai bañon
 Lenago,

Ta entzuten da:
«¿Aski dezute...?
Dantzatu beriz
Geiago.»

Izan ere ez da
Ezpatadantza
Bezin dantz-arin,
Garbirik,
Yauna'ren aurre
Dantza diteke
Ez dauka bada
Obenik.

GOIZ-GOIZEAN

Txoñotxio, pi-pifi...

Ene txoritxo
pozez beterik,
abesten asi da
zuaitz gañetik.

.....

lñon ez da ageri
odei beltz, ilunik...
Gaur goiza dago txit
alaitsu, garbirik...
Belárdiak intzez
beteta, bustirik,
Inguru guztia
baketsu... ixilik...
Euzki argitsua
poliki, geldirik.

Irġetzen asi da
mendien atzetik.

Txofoťxio, pi-piři...

Ene txorġtxoa
pozez beterġk,
abesten ari da
zuaitz gaņetik.







